

Alemanetik euskarara itzulitako unitate fraseologikoen azterketarako jarraibideak

ZURIÑE SANZ VILLAR (UPV/EHU)

Sarrera

Hasieratik helburua garbi genuen: alemanetik euskaratutako testuetan unitate fraseologikoen itzulpena aztertzea. Baina horretarako bidea prestatu beharra zegoen. Datozen lerroetan, 2009ko irailean hasi eta gaur arte¹ egindako bidea deskribatzen saiatuko gara labur-labur. Lehenengo eta behin, fraseologia zer den aztertzen hasi ginen, zein den jakintza esparru honen aztergaia eta nolakoa izan den bere garapen diakronikoa. Ondoren, euskal eta aleman fraseologiaren egoera deskribatzeari ekin genion, alde batetik, gaur arte ikertutakoa batzeko asmoz, eta, bestetik, bi hizkuntza hauek ikuspuntu fraseologiko batetik erkatu ahal izateko abiapuntua definitzeko. Azkenik, helburua lortzeko metodologia finkatu genuen, corpusaren metodologia, hain zuzen, eta artikulua hau publikatzen denerako gure ondorengo azterketaren oinarri izango den corpus digitalizatu eta lerrokatua prest egongo da.

Kontzeptuen definizioa

Historian zehar kontzeptu ugari eta oso desberdinak erabili izan dira hitz konbinazio finkoei erreferentzia egiteko. Gaur egun oraindik ez dagoen arren adostasunik, guk, nahaste-borraste horretan, zabalduen dauden terminoak erabiltzea erabaki dugu. Lehenengo eta behin, FRASEOLOGIA kontzeptuak, alde batetik, hitz konbinazio finkoak aztertzen dituen jakintza esparruari egiten dio erreferentzia, eta, baita, hizkuntza bateko hitz konbinazio fin-

1 Ikerketa lan hau Eusko Jaurlaritzako doktorego aurreko bekaren (2010eko urtarrila-2010eko abendua) laguntzaz egin da.

koen multzoari. “Hitz konbinazio finko” horiei guk FRASEOLOGISMO edo UNITATE FRASEOLOGIKO (=UF) deituko diegu eta Corpasen (2003:134) definizioa hartuko dugu hauek deskribatzeko abiapuntutzat. Honela dio: “Por unidad fraseológica se entiende una combinación estable de al menos dos palabras, que, en virtud de las distintas corrientes, tendrá como límite superior el sintagma o la oración compuesta y presentará como rasgos inherentes la fijación o la idiomatización por sí solas, o bien una combinación de ambos criterios”.

Definizio honetatik ondorioztatu dezakegu hiru direla (edo izan daitezkeela) UFen ezaugarriak: polilexikalitatea, finkotasuna eta idiomatizitatea. UFek polilexikalitatearen ezaugarria izateak esan nahi du gutxienez bi hitzez osatuta daudela. Eta goi-muga, Burgerrek egiten duen bezala, perpausean ezarriko dugu. Ikertzaile gehienek ezaugarri hau oinarrizko ezaugarri bezala kontsideratzen duten arren, badaude zalantzan jartzen dutenak. Gure kasuan azken gogoeta hauek kontuan hartzekoak izango dira, euskararen kasuan gertatu ohi delako —hizkuntzak berak dituen ezaugarriengatik— hitz bakarrez osatzen direla beste hizkuntza batzuetan hitz batez baino gehiagoz osatuta dauden UFak².

Finkotasunarena UF guztiek duten ezaugarria da: UFak finkoak dira eta behin eta berriz erabiltzen ditugu egitura eta esanahi berdinarekin. Baina, Burgerrek (2007:31) dioen bezala, ezin dugu ahaztu UFek hasiera batean pentsatzen zena baino aldaketa gehiago onartzen dituztela. Euskaraz, esate baterako, “nor bait bere onetik/senetik atera” esan dezakegu, eta, alemanez, *jmdm auf den Arm/lauf die Schippe nehmen* esan dezakegu (“nor baiti adarra jo”).

UF bat idiomatikoa izango da, fraseologismo horren esanahi fraseologikoa eta hitzez hitzeko esanahia bat ez datozenean. Alemaneko *Öl ins Feuer giessen* UFan, esate baterako, hitzez-hitzeko esanahia (“olioa sutara bota”) eta esanahi fraseologikoa (“zirikatu”) ez datoz bat. Gainera, UFa ezagutzen ez badugu, zaila egiten zaigu esanahi fraseologikora heltzea. Baina beti ez dugu zailtasun berdina izaten, eta, horregatik, idiomatizitate graduak desberdintzen dira: osoak, partzialak eta idiomatikoak ez diren UFak izango ditugu.

Hala ere, desadostasunak daude fraseologiaren ikergaia definitzerako orduan edo UFek izan behar dituzten ezaugarriak zehazterako orduan. Gakoa idiomatizitatearen ezaugarrian dago. Burgerrek (2007:14) fraseologia zentzu zabalean eta zentzu zorrotzean desberdintzen ditu ikuspegi desberdinak bereizteko. Lehen multzoa hitz batez baino gehiagoz osaturik dauden UFek eta finkoak direnek osatuko dute. Bigarren multzokoek, bi ezaugarri horiez gain, idiomatizitatearena ere izan beharko dute. Hau da, azken ikuskera honen arabera, idiomatikoak ez diren hitz konbinazio finkoak (esate baterako, kolokazioak) ez dira UFak. Beste ikuskera bat, Pragako Eskolako jarraitzaileen eskutik dator. Horiek ez dute muga zehatzik ezartzen UF mota desberdinen artean. Fraseologia *continuum* bat bezala ikusten dute eta horrela, UF batzuk, egonkorak eta idiomatikoak direnak, zentroan egongo dira eta egonkorak bakarrik direnak periferian.

2 Xabier Altzibarrek 2010eko *Europhrase*ko kongresuan egindako hausnarketa. Adibideetako bat gaztelaniazko “de una vez” izan zen. Euskaraz, izan ere, hitz bakarra erabiliko genuke: “behingoa”.

Beste batzuek (García-Page 2003) ikuskera zabal eta zorrotza beste kriterio baten arabera desberdintzen dute: kriterio sintaktikoa, alegia. Hau da, fraseologia zentzu zorrotzean ulertzen dutenek sintagma mailatik gorako unitateak (adibidez, esaera zaharrak) ez dituzte fraseologiaren barruan sartuko. Ikuskera zabala defendatuko dute bai sintagma mailako bai perpaus mailako unitateak fraseologismo kontsideratzen dituzten ikertzaileek.

Fraseologiaren garapena

Ikuspuntu diakroniko baten arabera, hiru eskola desberdindu ohi dira; hizkuntzalari errusiarrak izan dira ikerketa fraseologikoen aitzindari; ikertzaile anglo-amerikarrak, orain arte, isolatuta egon dira eta Europako ikertzaileak lehenengo jarraitzaile izan dira. Gaur egun, Corpasek (2003:40) dioen bezala, fraseologo eslaviarrek (aitzindariak) eta alemanek (hauen jarraitzaileak) osatzen dute diziplina honen erdigunea. Hain zuzen, Alemanian (Bielefeld) sortu zen, 1999. urtean, Europako eta Europatik kanpoko fraseologo garrantzitsuenak biltzen dituen elkarte eta *Europhras (Europäische Gesellschaft für Phraseologie)* izena jarri zioten. Hau izan arren elkarte sortu zen urte ofiziala, kongresu eta mintegiak 80ko hamarkadan hasi ziren antolatzen eta 2002. urtetik bi urtean behin egiten dira. Azkena 2010ean izan zen Granadan eta euskal fraseologiaren inguruko bi hitzaldi irakurri ziren: *Locuciones adverbiales idiomáticas en euskera* (Xabier Altzibar) eta *Préstamos y calcos fraseológicos en el euskera de los medios de comunicación* (Xabier Altzibar, Xabier Alberdi eta Julio García de los Salmones).

Euskal fraseologia

Beste hizkuntza batzuen aldean, euskararen inguruan dagoen lan fraseologiko kopurua —izan bilduma, zerrenda edo hiztegi eran— ez da handia. Baina horrek ez du esan nahi euskarak ez duenik tradizio fraseologikorik izan. Guk egin nahi izan duguna ibilbide hori aztertzea izan da. Horretarako 18 lanetan jarri dugu muga, eta, datozen lefroetan, azterketa horretatik ateratako ondorioak aurkeztuko ditugu.

Aurrerago ikusiko dugun moduan, fraseologismo mota desberdin asko dago, ez bakarrik atsotitzak eta lokuzioak, baina euskararen kasuan hauek aztertu izan dira batik bat. Atsotitzen kasuan, XVI. mendetik XIX. mende bukaera arte, zerrenda eta bildumak argitaratzen dira. Lokuzioei dagokienean, 1913. urtean argitaratu zuen Zamarridak lehen lokuzio liburua: *Manual del vascofilo. Libro de modismos, onomatopeyas, elipsis, uso distinto de la S y la Z y otras cosas que conviene saber para hablar y escribir bien en vascuence vizcaíno*; eta bera da baita ere teorizazio-rantz lehen pausoak eman zituena. Hona hemen liburutik ateratako “modismo” bat:

<p>Aiko-maikoan, con pamplinas. Au beti aiko-maikoan. Este siempre con pamplinas.</p>
--

Bai atsotitzen bai lokuzioen kasuan, termino ugari erabili izan dira: atsotitz, esaera zahar, esakune edo errefrau lehenengoei erreferentzia egiteko, eta esapide, esaera edo lokuzio, besteak beste, bigarrenagoak izendatzeko. Bi hauek bereiztearen beharraz idatzi zuen lehena Azkue izan zen. *Euskalerrriaren Yakintza*-ko (1945) hirugarren liburukian ikus daitekeen bezala, Azkuerentzat atsotitzek irakaspen bat dute eta esakerek, aldiz, ez. Hurrengo irudian liburutik ateratako adibide bat ikus daiteke:

Conciliar. *Loari buruan leku emon*, conciliar el sueño; liter.: dar al sueño lugar en la cabeza (B).

Azkueren ondoren egindako lanen egileak desberdintasun honen jabe izan arren, UF mota desberdinak nahastu egiten dira behin eta berriz. Garatek (1998), adibidez, lokuzio eta atsotitzen arteko bereizketa egiten du hitzaurrean, baina onartzen du bere lanean lokuzio batzuk sartu dituela, hauek hizkuntza aberasten dutelako. Pello Esnalek, Euskaltzaindiako 2001eko Herri Jardunaldietan egindako aurkezpenean, gauza bera dio Mokoroaren lanaren inguruan; hau da, Mokoroak egin zuela bere esku zegoen guztia eta orain guri dagokigula bilduma horretako UFak sailkatzea.

Honetaz gain, hizkuntza bat baino gehiagorekin lan egiten dutenek, fraseologismoen ordainak ematearen inguruan hausnartu dute. Oro har, esan daiteke, ordainak aurkitzearen zailtasuna azpimarratzen dela, alde batetik, eta bestetik, hartzailarentzat ulergarriak diren ordainak ematea garrantzitsua dela eta ez hitzez hitz itzultzea.

XX. mende bukaeran eta XXI. mendean atsotitz eta lokuzio bildumak argitaratzen jarraitzen da eta azterketa teorikoak agertzen hasten dira. Kaltzakortak (1998 eta 2001) euskal fraseologiaren historia eta euskal hiztegi gintzan fraseologismoek duten lekua aztertzen du. Xabier Altzibarrek (2004) kolokazioak aztertu ditu kazetaritzaren esparruan eta lehen aipatutako Granadako *Europhras*eko kongresuan parte hartu zuen. Esnalek (2001) Mokoroaren lanaren azterketa bat egiten du. Laburbilduz, lan asko egin da, baina egin diren lanetan nahasmena nabari da, bai terminologiari bai UFen sailkapenari dagokionean. Bi horiek dira ikusten ditugun beharrak: terminologia bateratu bat eta euskal UFen sailkapena.


Fraseologia alemana

Euskaraz gertatzen den bezala, alemanean ere XVI. mendetik XIX. mendera arte, helburua atsotitz bildumak egitea zen eta ez atsotitz edo UFen inguruko hausnarketa teorikoetan sakontzea. Hasiera batean, alemanaren kasuan ere, atsotitzak eta lokuzioak nahastuta jasotzen ziren bildumetan. Bi hauen arteko bereizketa egin zuen lehena Wander izan zen 1836an.

Azterketak egiten hasten diren fasean, 1960tik aurrerako fasean, kontzeptuak sortzen eta definitzen, eta lehen sailkapenak proposatzen hasten dira. Hori da, esate baterako, Klappenbach (1961) eta Agricolaren (1962) kasua. 1970etik aurrera monografia zabalen fasea hasten

da. Fase honetan izen asko aipa genitzake, baina bi izen eta bi monografia azpimarratu behar dira: Fleischer (1982) eta bere *Phraseologie der Gegenwartssprache* eta Burgerren (1982) *Phraseologie des Deutschen*. Lortzen dutena zera da: alde batetik, UFak definitzeko irizpideak zehaztea (gaur egungo lan gehienek edo bati edo besteari erreferentzia egiten jarraitzen dute) eta fraseologiaren ikuskera zabala defendatuz, ikerketa alor berriei atea irekitzea. Horrela, 80ko hamarkadaren erditik aurrera, fraseologismoak beste alor batzuetatik aztertzen hasten dira; bestek beste, UFe testuetan dituzten funtzioak eta testu mota desberdinetan dituztenak aztertuko dira, edo UFe jabekuntza eta irakaskuntzari buruzko ikerketak egingo dira.

Fraseologismo alemanen arloan, sailkapen ugari egin izan dira. Hemen Burgerrena aipatu nahiko genuke, bai ikuspuntu sintaktikotik bai idiomatizitatearen ikuspuntutik ikuskera zabala defendatzen duelako. Alde batetik, oinarrizko sailkapen bat eta, bestetik, bederatzi *spezielle Klassen* (klase berezi) proposatzen ditu. Oinarrizko sailkapena ondorengoa da:



Lehenengo eta behin, zeinuaren funtzioaren arabera, hiru multzo bereizten ditu. Erreferentzialek objektu, egoera edo prozesuei egiten diete erreferentzia; estrukturalen funtzioa erlazio gramatikalak sortzea da (*In Bezug auf, sowohl...als auch*, hau da, “-i dagokionez”, “bai...bai”) eta komunikatibok betebeharrak konkretu batzuk dituzte komunikazio egintzetan. Azken hauei ohiturazko formula deituko diegu. Esate baterako, multzo honen barruan sartuko genituzke *guten Morgen* (“egun on”) edo *wir sind der Auffassung* (“gure ustez”) bezalako formulak.

Erreferentzialak, era berean, bi azpimultzotan banatzen dira. Alde batetik, perpausaren mailatik beherakoak ditugu, eta hauetan Burgerrek, idiomatizitate graduaren arabera, kolokazioak (*sich die Zähne putzen*, “haginak garbitu”), lokuzio partzialak (*kill time*) eta lokuzioak (*die Katze im Sack kaufen*; “zahiaz irina egin”) bereizten ditu. UF proposizionalak kriterio sintaktiko eta linguistiko testualaren arabera perpaus finko eta formula topikoetan banatzen ditu. Lehenak kontestuari lotuak daude eta bigarrenak, aldiz, ez. Hau da, bigarrenak kontestu bati lotuta egon gabe ere ulertzen dira. Bi multzo ditugu: atsotitzak (*Morgenstund hat Gold im Mund*. Garaten hiztegian aurkitzen da: “Goizean gox jagiten danai, Jangoikoak lagunketautso”) eta


ageriko formulak (*was sein muss, muss sein*; “egin beharrekoa, egin egin behar da”). Azken hauek jakinak diren gauzak adierazten dizkigute.

Azkenik, klase bereziak proposatzen ditu, hauetariko batzuk oinarrizko sailkapen horretan lekurik ez dutelako edo multzo desberdinetan sartu beharko genituzkeelako. Klase bereziak ondorengoak dira: errepikapen formulak (hitzen errepikapenean oinarritzen den eredu baten arabera osatuta daude), UF pareak (funtzio bera duten bi hitz preposizio edo juntagailu bidez loturik daudenean; esate baterako, “argi eta garbi”), konparazioak, UF zinetikoak (hizketaz kanpoko ohiko portaerak hitzez jasotzen direnean), aipuak, autore fraseologismoak (literaturan garrantzi berezia dute. Idazleak sortutako fraseologismoak dira, testu konkretu horretan bakarrik izango dute zentzua), UF onimikoak (izen bereziak), termino fraseologikoak (espezialitate hizkeretako terminoak) eta kliseak (eslogan bezala funtzionatzen dute).

AI-EU erkaketarako abiapuntua

Bai hizkuntzari bai fraseologiari eta bai fraseografiari dagokionean, alemanaren eta euskararen errealitateak desberdinak dira, eta, hala ere, paralelismo batzuk ikusi ahal izan ditugu tradizio fraseologikoari dagokionean. Lehen atsotitz bildumak euskararen kasuan XVI. mende bukaeran, eta, alemanaren kasuan, XVI. mende hasieran argitaratzen dira. Lokuzio eta atsotitzen arteko lehen bereizketa euskararen kasuan Azkuek egiten du XX. mendearen erdi aldera eta alemanaren kasuan Wanderrek egingo du XIX. mendearen erdi aldera. Lokuzio bildumak euskararen kasuan XX. mendean zehar hasiko dira argitaratzen eta alemanaren kasuan XIX. mendean zehar. Beraz, esan dezakegu, alemana beti pauso bat aurrerago joan den arren, joerak berdintsuak direla hasierako fase horretan.

Alemaneko sistema fraseologikoa beste hizkuntza askorenarekin alderatu izan da ikerketa desberdinetan (ingeleza, frantsesa, errusiera, txinera, hungariera...). Baina euskara eta alemanaren arteko UFen alderaketa ez da inoiz ikertu. Horretarako, beharrezkoa iruditzen zaigu, behin-behineko sailkapen orokor batean oinarrituz, hemendik aurrera erabiliko dugun terminologia definitzea. Ikuskera zabala defendatzen duen sailkapena hartu nahi izan dugu kontuan eta Burgerrena hartu dugu oinarri gisa, hurrengo irudian ikus daitekeen bezala:



Alde batetik, kolokazioen eta lokuzioen bi multzo handi proposatu ditugu perpausaren mailatik beherako UFentzat. Bestalde, perpaus mailako UFentzat, momentuz, multzo bakarria proposatzea erabaki dugu, paremien multzoa. UF proposizionalen barruan, ikus daitekeen bezala, Burgerren perpaus finkoen multzoa ez jasotzea erabaki dugu, pentsatzen dugulako (Burgerrek berak hasiera batean egin zuen bezala) ez direla UF mota bereziak; asko ohiturazko formula kontsidera daitezke eta beste batzuk lokuzio, esate baterako. Egokiagoa iruditu zaigu, bestalde, UF estrukturalak multzo bereizi batean kokatzea, lokuzioen barruan kokatzea baino —Corpas Pastor-ek 1996 egiten duen bezala—, UF estruktural hauek ez direlako gai euren kabuz sintagmak osatzeko. Azkenik, goian aipatu bezala, UF komunikatiboen barruan ohiturazko formulak bereizi ditugu.

Garrantzitsua da, era berean, bi hizkuntza (edo gehiagoren) arteko U Fen alderaketa bi ikuspuntu desberdinetatik egin daitekeela azpimarratzea. Batak bestearen emaitzetatik etekina atera dezakeen arren, garrantzitsua delako biak desberdintzea. Alde batetik, fraseologia kontrastiboak (=FK) bi hizkuntza edo gehiagoren arteko sistema fraseologikoen artean dauden berdintasun eta desberdintasunak aztertzen ditu. Azterketa hori kontestua kontuan hartu gabe egiten da, hau da, UFak isolatuta aztertzen dira, eta, horregatik, alderdi denotatibo eta estrukturalak garrantzitsuagoak dira konnotatibo eta pragmatikoak baino. Itzulpengintzaren ikuspuntutik, aldiz, UFak kontestuan aztertzen dira, kontestuaren arabera fraseologismo berdin baten esanahia aldatu egin daitekeelako.

Bietan da garrantzitsua baliokidetasun-erlazioen bilaketa, baina baliokidetasun kontzeptua aldatu egiten da ikuspuntuaren arabera. FKaren helburua baliokidetasun sistematikoa da eta itzulpengintzarena itzulpen baliokidetasuna. Baliokidetasuna ulertzeko bi modu desberdin hauen ondorioz, gertatzen da eta frogatu da (Piitulainen 2006) ez direla bat etortzen hiztegiak ematen digun ordaina eta itzulpenetan aurkitzen duguna. Edo Van Lawick-ek (2006:100) dioen bezala, analisi kontrastibotik ateratako baliokide fraseologikoak ez dira beti itzulpen baliokide onak izango testu konkretu batean.

Kontua da U Fen itzulpena aztertu duten orain arteko ikerketa-lan asko fraseologia kontrastiboko kontzeptuetan soilik oinarritu direla (López Roig 2002; Segura García 1998), eta, ondorioz, gure ustetan, deskriptiboak baino lan preskriptiboak egin direla. Lan hauetan sorburu testuak “sokratua” izaten jarraitzen du. Gure ikerketa lana Itzulpen Ikasketa Deskriptiboan (*Descriptive Translation Studies*) markoan kokatuko dugu, (1) lanak izaera deskriptiboa eta ez preskriptiboa izatea nahi dugulako, (2) sorburu testua eta xede testua, biak, hartuko ditugulako oinarri gisa, honek aukera emango digularik U Fen itzulpen analisia bi norabidetan egiteko eta (3) corpus batekin lan egingo dugulako.

Corpusaren metodologia

Ikusi dugu zer den fraseologia eta zer diren unitate fraseologikoak; aztertu ditugu historian zehar egon diren eskola desberdinak; deskribatu dugu bai euskal bai aleman fraseologiaren egoera zein den, eta saiatu gara, bi hizkuntzak erkatu ahal izateko oinarria finkatzen. Hau guztia helburu jakin batekin egin dugu; alemanetik euskaratzen diren literatur testuetako UFak nola itzultzen diren deskribatzea eta itzulpen-portaera arauak aztertzea, alegia.

Helburu hori lortzeko pausoak honako hauek dira. Lehenengo eta behin, katalogoa osatu dugu (corpus 0); ondoren, testuak aukeratu ditugu (corpus 1); hirugarrenengoz, corpus digitalizatu, lerrokatu eta elebiduna (zeharkako itzulpenen kasuan hirueleduna izango da) sortuko dugu (corpus 2); ondoren, UFak erauzi eta aztertuko ditugu, azkenik, itzulpen-portaera arauak zehaztu ahal izateko. Hurrengo lerroetan urrats hauek banan-banan deskribatuko ditugu.

a) Corpus 0

Lehenengo eta behin, euskarara itzulita dauden alemaneko jatorrizko testu guztiak jasotzen dituen katalogo bat behar dugu. Ibon Uribarrik, ikerketa lan honen zuzendariak, ekin zion lan honi 2006an eta lan horren emaitza da *Aleuska* katalogoa; jatorrizko testu aleman eta hauen euskarazko itzulpenez osatutako inbentarioa, non jatorrizko eta xede izenburuez gain beste hainbat datu jasotzen diren: jatorrizko/xede egilea, jatorrizko/xede argitalpen data, generoa, xede etiketa (itzulpena zuzenekoa edo zeharkakoa izan den zehazten da bertan), besteak beste. Hurrengo irudian, katalogoa osatzen duen erregistro baten atal bat ikus daiteke FileMaker Pro 11 bertsioan:

The screenshot shows a FileMaker Pro 11 record form with the following fields:

- Datos TRACE:** Código (01100), Fecha creación (27 de septiembre de 2004), Fecha modificación (6 de noviembre de 2010).
- Datos de Archivo General de la Administración (A.G.A.):** Caja AGA, Nº Expediente, Año, Legajo, Fecha Expte, Felicitario, Provincia, Calificación.
- Datos Textuales:** Autor Original (Thomas Mann), Año edición original (1911), Autor Meta 1 (Xabier Mendiguren Berzizburu), Pseudautor, Título Original (Der Tod in Venedig), Título Meta (Heños Venezian), Etiqueta Meta (Traducción directa), Género Meta (narrativa).

Aipatu bezala, 2006. urtea izan zen katalogoaren sorrera-urtea, baina, izan urtero itzulpen berriak egiten direlako edo beti daudelako osatu beharreko datuak erregistroetan, katalogoa osatzearena istorio amaigabe bat da (Zubillaga 2009). Horregatik, Naroa Zubillagak haur eta gazte literaturari dagokion zatia osatu zuen eta nik ere katalogoa elikatzen jarraitu dut. Gaur egun, genero guztiak kontuan hartuta, 581 erregistro jasotzen dira katalogoan³.

Corpus 1: Testuen aukeraketa

Hurrengo urratsa analizatuko ditugun testuen aukeraketa izango da. Aukeraketa hau alde zuzenetik finkatutako kriterio batzuen arabera egin beharko da. Lehenengo eta behin, gaur egun erabiltzen diren UFak aztertu nahi ditugunez, testu garaikideak aukeratu ditugu. Bigarren-egoz, katalogoan jasotzen diren genero desberdinen artean (poesia, saiakera, teatroa eta narratiba) narratibaren generoa (haur eta gazte literatura, eta helduentzako literatura) aukeratu dugu, hiru arrazoi nagusigatik: gure katalogo barruan genero adierazgarriena delako, testu mota konkretu hauetan UFen agerpen-maiztasuna handia delako (Richter-Vapaatalo 2007) eta UFei literatur testuetan bereziki har dezaketen balio fraseologiko gehigarria dela eta (*phraseologischer Mehrwert*). Balio gehigarri edo potentzial (Koller 2007) horrek —edo Gréciano-ren hitzetan (1994) *Phraseoaktivität* edo fraseoaktibitate delako horrek— UFei testuan har ditzaketen ezaugarri, efektu eta funtzioei egiten die erreferentzia. Hiru kriterio hauek kontuan hartuta gure corpusa 281 erregistrotara murrizten da.

Beste faktore garrantzitsu bat da itzulpenak zuzenean edo zeharka egin diren. Alemanetik euskarara nola itzultzen den deskribatu nahi dugun heinean, guri, batez ere, zuzenean itzulitako testuen emaitzak interesatzen zaizkigu. Baina, era berean, zeharkako itzulpenak errealitate bat dira, aztertzea interesatzen zaigun errealitate bat. Horregatik, corpusaren 2/3 alemaneko jatorrizko testuek eta zuzenean itzulitako euskarako xede testuek osatuko dute, eta 1/3 alemaneko jatorrizko testuek, zeharka itzulitako euskarako xede testuek eta kasu hauetako bakoitzean erabili diren “zubi testuek”.

Gure helburua ez da jatorrizko egile jakin baten edo xede egile jakin baten testuak aztertzea. Hori dela eta, kontuan hartu beharreko beste kriterio bat aniztasunarena izango da; hau da, corpusak jatorrizko egile (JE) eta xede egile (XE) desberdinak jaso beharko ditu.

Alemanaren kasuan, beste ikerketa lan batzuetako emaitzetan oinarrituta, badakigu Erich Kästner bezalako egileek maiztasun handiarekin erabiltzen dituztela UFak (Richter-Vapaatalo 2007). Horrelako emaitzek, beraz, testuen aukeraketa ere lagun diezagukete. Horrela, corpus 1 osatuko duten testuak aukeratu ditugu. Beheko taula honetan aukeraketa horren xehetasunak ikus daitezke:

3 Sarean katalogoaren 2008ko bertsioa kontsultatzeko aukera dago (http://www.ehu.es/ibon_uribarri/Aleuska.htm).

Testu kopurua	HGL		HL		GUZTIRA	
	16 bitestu	12 tritestu	23 bitestu	4 tritestu	39 bitestu	16 tritestu
JE/XE kopurua	14 JE	20 XE	19 JE	16 XE	32 JE	32 XE

Haur eta gazte literaturari dagokionean, 28 testu aukeratu ditugu guztira. Horietatik, 16 zuzenean itzultakoak dira eta 12, berriz, zeharka. Helduentzako literaturan, guztira 27 izango dira corpus 1 osatuko dutenak. Kasu honetan, ez dugu aukera hain zabala izan, zeharka itzuli diren testu kopurua nahiko txikia delako. Horregatik, 23 zuzenean itzultako testuak dira eta 4 zeharka. Aniztasunaren kriterioa aplikatuz, guztira 32 jatorrizko egile eta 32 xede egile desberdinek osatuko dute corpusa.

Corpus 2: corpus digitalizatu, lerrokatu eta elebidunaren/hirueledunaren sorrera

Behin testuak aukeratuta, lehenengo, digitalizatu, eta, gero, lerrokatu egin beharko ditugu, corpus 2 hori osatzen joateko. Testu digitalizatuak lortzerako orduan, aukera desberdinak ditugu. Lehenengo, xede testuen kasuan, <http://www.armiarma.com/> webgunera jo dugu. Ondoren, argialetxe eta itzultzaileekin jarri gara harremanetan, eta, azkenik, beste erremediorik ez zegoenean, testuak eskaneatu ditugu. Jatorrizko testuen kasuan, ez gara argialetxe eta itzultzaileekin harremanetan jarri, eta, beraz, testu gutxi batzuk interneten aurkitu ditugu (<http://www.zeno.org/>, <http://gutenberg.spiegel.de/>) eta besteekin eskanerra erabili dugu.

Testu digitalizatuak txukundu egin behar dira, eskanerrak ez baitu testu garbi-garbirik eskaintzen. Zenbat eta garbiago testua fase honetan, orduan eta arazo gutxiago hurrengo urratsetan. Testu garbituak, ondoren, XML formatua erabiliz etiketatu behar dira —hau da, esaldi eta paragrafo markak ezarri behar dira— programa informatiko bereziak erabiliz. Gainera, etorkizunean lematizazio tresnak ere erabiltzea aurreikusten dugu. Testuak etiketatu ondoren, lerrokatu egiten ditugu TMX formatuko bitestuak (alemana-euskara) edo tritestuak (alemana-gaztelania-euskara) sortuz. Lerrokatze prozesuan sortzen diren arazoak —adibidez, esaldi bati beste esaldi bat ez dagokionean— konpondu egin behar dira behin betiko lerrokatzea lortu arte.

Datuen erauzketa eta analisisa

Testuak lerrokatzen ditugunean, UFak erauzi eta aztertuko ditugu. Pauso honetan sortzen den galdera da ea zein izango diren erauzi nahi ditugun UF mota horiek. Beste ikerketa lan batzuetara jotzen badugu, lan mota desberdinekin egiten dugu topo. Larreta Zulateguik (2001), esate baterako, somatismoak⁴ bakarrik aztertzen ditu; López Roig-ek (2002), bestalde, Elfriede Jelinek-en *Die Klavierspielerin* liburuko UF guztiak analizatzen ditu; Van Lawick-ek (2006)

4 “Series de locuciones que comparten un elemento relativo a las partes del cuerpo” (Corpas Pastor 1996:117).

ere somatismoak erazten ditu Bertolt Brecht-en lanetan eta Richter-Vapaatalok (2007), aldiz, alemaneko haur literaturako 17 lan desberdinetan sei UF mota desberdin aztertzen ditu. Azken ikertzaile honen jokabidea hobesten dugunez, guk ere UF mota konkretuak aztertuko ditugu, iruditzen zaigulako, alde batetik, UF mota konkretu bakar baten itzulpenaren analisitik lortzen diren emaitzak ez direla adierazgarriak. Bestalde, corpus handiarekin lan egingo dugunez, ezin-go ditugulako UF guztiak aztertu, baina bai adierazgarria izango den UF kopuru bat.

Gure asmoa somatismoak, errepikapen formula eta UF-pareak, eta aditz-lokuzio jakin batzuk aztertzea da, horrela fraseologismo mota ezberdinak itzultzean gertatzen dena ikusteko. Fraseologismo horien bilaketa egingo dugu corpus lerrokatuan, jaso dituen itzulpenak sailkatuko dira itzulpen motaren arabera, eta ondoren lortutako datuak analizatuko ditugu. Eta hori egiterakoan bi kontu zehaztu nahiko genituzke: fraseologismo mota horiek zuzenean eta zeharka berdin itzultzen diren ala ez, batetik; eta fraseologismo mota horiek haur eta gazte literaturan eta helduentzako literaturan berdin itzultzen diren ala ez.

Arauen formulazioa

UFak aztertzerako orduan, gure hipotesia da badaudela “comportamientos o fenómenos empíricos recurrentes” (Toury 2004:6). Horrela, azken helburua alemanetik euskaratutako literatur itzulpenetan dauden erregularitateak identifikatu eta itzulpen-portaera arauak zehaztea izango da.

BIBLIOGRAFIA

- AGRICOLA, E. (1962) *Wörter und Wendungen. Wörterbuch zum deutschen Sprachgebrauch*. Leipzig: VEB Bibliographisches Institut.
- ALTZIBAR, X. (2004) “Kolokazioak euskaraz. Zer axola duten kazetaritzan” in *Euskarazko kazetaritzaren I. kongresua. Kazetaritza euskaraz: oraina eta geroa*. Euskal Herriko Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen zerbitzua, 383-395.
- AZKUE, R. M. (1989³[1945]) *Euskalerrriaren Yakintza (3.lib.)*. Madrid; Bilbao: Euskaltzaindia & Espasa Calpe.
- BURGER, H. (2007³ [1982]) *Phraseologie. Eine Einführung am Beispiel des Deutschen*. Berlin: Erich Schmidt Verlag.
- CORPAS PASTOR, G. (1996) *Manual de fraseología española*. Madrid: Gredos.
- CORPAS PASTOR, G. (2003) *Diez años de investigación en fraseología: análisis sintáctico-semánticos, contrastivos y traductológicos*. Madrid, Frankfurt am Main: Lingüística Iberoamericana.
- ESNAL, P. (2001) “Ortik eta emendik: euskal lokuzioak eta fraseologia baino ere haratago” in *Euskera XLVI*, 137-144.
- FLEISCHER, W. (1997² [1982]) *Phraseologie der deutschen Gegenwartssprache*. Tübingen: Niemeyer.
- GARATE, G. (1998) *27.173 Atsotitzak, Refranes, Proverbes, Proverbia*. Lasarte-Oria: BBK Fundazioa.
- GARCÍA-PAGE, M. (2003) “De los fines y confines de la fraseología” in Gonzalo Calvo, J.M.; Terrón González, J.; Martín Camacho, J.C. (arg.) *VII Jornadas de metodología y didáctica de la lengua española: las unidades fraseológicas*. Cáceres: Universidad de Extremadura, 23-79.
- GRÉCIANO, G. (1994) “Vorsicht, Phraseoaktivität!” in Sandig, B. (arg.) *Europhras 92: Tendenzen der Phraseologieforschung*. Bochum: Universitätsverlag Brockmeyer, 203-318.
- KALTZAKORTA, X. (1998) “Problemas e solucións adoptadas nos dicionarios éuscaros de fraseoloxía” in Ferro Ruibal, X. (arg.) *I Coloquio Galego de fraseoloxía*. Santiago de Compostela, 183-193.
- KALTZAKORTA, X. (2001) “Euskal fraseologia: historia, oinarriak” in *Euskera XLVI*, 73-87.
- KLAPPENBACH, R. (1961) “Feste Verbindungen in der deutschen Gegenwartssprache” in *Beiträge. Sonderband. E. Karg-Gasterstädt zum 75. Geburtstag*, 443-457.

- KOLLER, W. (2007) "Probleme der Übersetzung von Phrasemen" in Burger, H. et al. (argk.) *Phraseologie: Ein Internationales Handbuch der zeitgenössischen Forschung. Phraseology: An International Handbook of Contemporary Research*. 1.Lib. Berlin, New York: Walter de Gruyter, 605-613.
- LARRETA ZULATEGUI, P. (2001) *Fraseología contrastiva del alemán y el español. Teoría y práctica a partir de un corpus bilingüe de somatismos*. Frankfurt am Main: Peter Lang.
- LÓPEZ ROIG, C. (2002) *Aspectos de fraseología contrastiva (alemán-español) en el sistema y en el texto*. Frankfurt am Main: Peter Lang.
- MOKOROA, J. M. (1990) *Ortik eta emendik: repertorio de locuciones del habla popular vasca, oral y escrita, en sus diversas variedades* (I eta II lib.). Bilbo: Labayru.
- PIITULAINEN, M-L. (2006) "Äquivalenz im Wörterbuch und im Text" in Breuer, U. eta Hyvärinen, I. (arg.) *Wörter-Verbindungen. Festschrift für Jarmo Korhonen zum 60. Geburtstag*. Frankfurt am Main: Peter Lang, 237-246.
- RICHTER-VAPAATALO, U. (2007) *Da hatte das Pferd die Nüstern voll. Gebrauch und Funktion von Phraseologie im Kinderbuch: Untersuchungen zu Erich Kästner und anderen Autoren*. Frankfurt am Main: Peter Lang.
- SEGURA GARCÍA, B. (1998) *Kontrastive Idiomatik: Deutsch-Spanisch. Eine textuelle Untersuchung von Idiomen anhand literarischer Werke und ihrer Übersetzungsprobleme*. Frankfurt am Main, Bern, Berlin: Peter Lang.
- TOURY, G. (2004) *Los estudios descriptivos de traducción y más allá. Metodología de la investigación en estudios de traducción* (Rosa Rabadán eta Raquel Merinoren itzulpena). Madril: Cátedra. 17-33.
- VAN LAWICK, H. (2006) *Metàfora, fraseologia i traducció. Aplicació als somatismes en una obra de Bertolt Brecht*. Aachen: Shaker Verlag.
- WANDER, K.F.W. (1836) *Das Sprichwort, betrachtet nach Form und Wesen, für Schule und Leben, als Einleitung zu einem großen volksthümlichen Sprichwörterschatz*. Hirschberg: E.F. Zimmer.
- ZAMARRIPA, Pablo. (1913) *Manual del Vascófilo*. Bilbo: Wilsen Editorial.
- ZUBILLAGA, N. (2009) "Alemanetik euskaratutako haur eta gazte literatura edo amaigabeko istorioa". *Senez*, 37.

Sarean:

Literaturaren sarean. Armiarma: <http://www.armiarma.com/>

Bibliothek Zeno.org: <http://www.zeno.org/>

Projekt Gutenberg DE: <http://gutenberg.spiegel.de/>

Aleuska katalogoa sarean (2008): (http://www.ehu.es/ibon_uribarri/Aleuska.htm)

Pautas para un análisis de unidades fraseológicas en la traducción del alemán al euskera

Teníamos claro el objetivo desde el principio: analizar la traducción de unidades fraseológicas del alemán al euskera. Pero para ello, primero teníamos que preparar el terreno. En este artículo intentamos describir brevemente el camino recorrido desde septiembre del 2009 hasta hoy. En primer lugar, analizamos qué es la fraseología, cuál es el objeto de estudio de esta área de conocimiento y cómo ha ido desarrollándose en el tiempo. Luego, describimos la situación fraseológica tanto del euskera como del alemán con un doble objetivo: por una parte, recopilar los resultados de las investigaciones realizadas hasta hoy, y, por otra, definir el punto de partida en la comparación de estas dos lenguas desde un punto de vista fraseológico. Por último, fijamos la metodología para lograr el objetivo definido –la metodología del corpus–, y, para cuando se publique este artículo, dicho corpus estará ya digitalizado y alineado, algo imprescindible para análisis posteriores.

Instructions pour une analyse des unités phraséologiques traduites de l'allemand vers la langue basque

Dès le départ, notre objectif était clair : analyser la traduction d'unités phraséologiques de l'allemand vers la langue basque. Mais pour y parvenir, il nous fallait d'abord préparer le terrain. Dans cet article, nous tenterons de décrire brièvement le chemin parcouru de septembre 2009 à ce jour. En premier lieu, nous commençons par analyser ce qu'est la phraséologie, quel est l'objet d'étude de ce domaine de connaissance et comment il s'est développé avec le temps. Nous poursuivons en décrivant la situation phraséologique de la langue basque et celle de l'allemand, d'une part, dans le but de rassembler les résultats des recherches obtenus jusqu'ici ; d'autre part, afin de pouvoir définir le point de départ de la comparaison entre ces deux langues d'un point de vue phraséologique. Enfin, nous établissons la méthodologie afin de parvenir à l'objectif défini – concrètement, la méthodologie du corpus –, et lorsque cet article sera publié, nous disposerons de ce corpus numérisé et aligné, élément indispensable pour l'analyse suivante.

Steps for analysing phraseological units translated from German into Basque

From the start our aim was clear: to examine the translation of phraseological units in texts translated from German into Basque. But to do this, the ground had to be prepared. An attempt will be made in the following lines to briefly describe the ground covered between September 2009 up until today. First of all, an analysis was conducted into what phraseology is, what the object of study in this area of knowledge is, and how it has developed over time. After that, the situation of Basque and German phraseology is described, firstly to pull together what has been researched so far, and secondly, to specify the starting point for comparing these two languages from the phraseological perspective. Finally a methodology, a corpus methodology in fact, was established to achieve this aim, and by the time this article is published a digitised, aligned corpus will be ready and will be a key element for the analysis that will follow.



